

Skatearen furixaria

Hiru hilabete eskas pasa dira Ongaraiko skatepark-a eraiki zene-tik. Ofizialki inauguratu ez bada ere, erabiltzerik ez du falta pista berriak. Ermuarrak eta Ermutik kanpokoak ere gerturatzen dira patin, skate edo bizikletekin irristatu eta jauziak egitera. Nagusiki gazte jendea dabil patinatzen eta horietako asko hasi berriak dira. Jon Ganboa eta Jon Acosta durangarrak, 15 eta 14 urtekoak hurrenez hurren, uztailearen 5ean izan ziren lehenengoz Ongaraiko skatepark-ean. *"Interneten argazki batzuk ikusi genituen eta probatzera etorri gara. Egia esan ondo dago pista, agian Durangokoa hobea da, baina hau ere ez dago gaizki"*, diote durangarrek. Hiru hilabete baino ez daramate kirol hau praktikatzen. Beste batzuek egiten dutena ikusi eta eurak bere kabuz animatu ziren skate-arekin.

Jon Dacosta eibartarra ere, Ongaraiko pistara dator, Eibarkoa baino gehiago gustatzen zaiolako. 16 urte ditu eta duela urtebete hasi zen skate-an, besteei begira ikasten. *"Hasi nintzen oso jende gutxi ibiltzen zen skate-an eta nire kabuz, bi-*



deok ikusten ikasi dut. Hori bai, asko praktikatzen dut, egunero aritzen naiz, 4 orduz gutxienez. Kontua zera da, aurretik snow-a egiten nuela eta nahiko erraza egin zitzaidala ikastea". Esperientzia gehien duena izanik, gazteagoei laguntzen eta irakasten aritzen da Jon Dacosta skatepark berrian.

Asier Añon, David Garcia, Julen Postigo, Daniel Benito eta Xabier Martin, 11 eta 12 urteko ermuarrak pista ireki zutenetik ia egunero eta

euririk egiten ez duenean joaten dira patinatzen. Gehienek bere lehen urratsak Ongaraiko pista berrian eman dituzte, nahiz eta aurretik Asier Añon, David Garcia eta Daniel Benitok zer edo zer bazekiten. Hala ere, ez zeukaten toki aproposik skate-arekin ibiltzeko eta halako bat irekitzea ideia ona izan dela diote. Xabier Martinek, ordea, Ongarain ikasi du guztia, batez ere Jon Dacosta eibartarraren eskutik. Kolpeak ere izan dira tar-tean, Xabier Martinek bekokian kolpea hartu zuenetik, kas-koarekin ibiltzen da. Gainerako guztiak belaunetako eta ukondoetako babesekin

ibiltzen dira, nahiz eta ubeldura eta urratuak egiten dituzten.

Pista bikaina hasteko

'Zut skateparks' enpresak Ermuko skatepark-a diseinatu eta eraiki du Ongarain. Txus Dominguez, Miguel Dominguez eta Alex Mosterin dira Zut Skateparks-eko (www.zutskateparks.com) sortzaile eta langileak.

Txus Dominguezek 7 urteko esperientzia zeukan Gestalskate enpresan, skate pistak eraikitzen eta Alex Mosterinek ere bi urte zeramatzan Gestalskatekin diseinu lanak egiten.

2007ko urrian 'Zut skateparks' sortu zuten eta bertan ari da hirukotea lanean. Eurak diseinatu eta eskuz egiten dituzte pistak. Horretarako abantaila handiarekin jokatzeko dute, euren pasioa patinatzea baita: *"Hori da garrantzitsuena, skate-rrak ez diren profesionalak ez dituzte guk beste mima-tzen euren lanak. Guk patinatzaile baten ikuspegitik egiten dugu pista, guretzat izango bailitzan eta patinatzeko ahalik eta perfektuen lagatzen ahalegintzen gara"*, azpimarratzen du Alex Mosterinek.

Ermuko pistan skatearekin dabilzan gazteak dira nagusi, baina badira beste-lako erabiltzaileak ere, patinekin edo BMX bizikletekin aritzen direnak hain zuzen ere. Horixe da Ongaraiko pistak eskaintzen duena, ez delako bizikletekin ibiltzea debekatzen. Mosterinen esanetan, *"Ermuko pista, oso ona da skatean hasiko direnentzat. Oso ondo pen-*



tsatua dago kirol honen has-tapenerako eta bere ondorengo bilakaerarako. Ikaste-ko bikaina da eta ez du arriskurik". Horrez gain, pista eraiki den lekua oso aproposa dela dio Mosterinek, eguzkitsua baita, bista onak dituelako eta kirol gu-ne baten barnean dagoelako. *"Daukan kokapena, dituen bistak eta tamaina kontuan hartuta, nik 8 bat jarriko nioke, estali gabe dagoelako, bestela 10 bat emango nioke"*.

Euriarekin ezin erabili

Kokapen bikaina izan arren, euriak ekartzen ditu horrelakoetan arazoak, euria egiten duenean ezin delako erabili. Izan ere, pistan inaugurazio ofiziala maiatzean egitekoa zen, baina euriaren ondorioz atzeratu behar izan zuten

eta oraindik ez da inauguratu, nahiz eta Zut skateparks-eko kideek inauguratuztat ematen duten.

Euri kontuak direla eta, Mosterinek argi utzi nahi du gaur egun ez dagoela Bizkaia osoan instalatzen dagoen instalakuntzarik patinetan ibiltzeko. Orotara, Bizkaian 25 skatepark daude gutxi gora behera eta horrek erreferente bilakatu du Euskal Herri-ritik kanpo: *"Bizkaia gaur egun skate-aren meka dela esan daiteke"*, dio Alex Mosterinek. Europarren eta espainiarren artean, asko eta asko etortzen dira Bizkaia. Hori dela eta, skatezale askorentzat, batez ere Gipuzkoatik eta Iparraldetik Bizkaia datozenentzat geldialditxoak egiteko toki aproposa bilakatzen ari da Ongaraiko pista.

Harrobia ere bada Bizkaia eta horren erakusle,

maila profesionalen munduko txapelketetan ari diren Ivan Ribado, Alain Goikoetxea eta Ianire Elorriaga dira.

Pistaren ezaugarriak

Pistak 665 metro karratu ditu eta bertan, skatearekin, patinekin edo BMX bizikletekin irristatu edo jauziak egin daitezke. Horretarako, 300 metro karratu inguru dituen 'bañera' da pistak duen instalaziorik bikainenena. 'Bañera'-k hiru altuerara ditu: Lehenengoa 1,20 metrokoa, bigarrena 1,60koa eta hirugarrena 2,30ekoa.

Pistako argiak goizaldeko 2:00ak arte egongo dira piztuta udan eta jende ugari doan lekua izanik, zakarrontziak eta bankuak jarriko dira bertan.

Alazne Aiestaran

"Kanpotik datozenentzat geldialditxoerako leku aproposa da Ongaraiko pista"

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• Astelchenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

943172665 ERMUA

BIG GROS Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak... eta hostalarien umore ona

PERSIANAS ORBE

- muntaia eta konponketa
- motorizazioa
- pertsiana dekoratiboak
- pertsiana bilgarriak
- segurtasun pertsianak
- moskiterak
- toldoak

Erakusketa berria: Karabixa, 1 943 17 98 60

Zearreko buelta, 2 • 943 17 66 34 • 630 01 13 41

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA